

Tortura, erraza da ez ikustea

ESTRASBURGOKO epaia duela bi aste ezagutu zen: Espainiako Gobernuak 23.000 euroko kalte ordainak ordaindu beharko dizkio Mikel San Argimiro euskal presoari, honek bere garaian salatutako torturak ez ikertzeagatik. Nagusiki oharkabean joan zen albistea, baina balio izan du ERCKo eta beste talderen bateko diputatuek galderak egin ditzaten gaiaren inguruan.

Urriaren 25ean hasiko da Donostian Igor Portu eta Mattin Sarasolak salatutako torturen epaiketa. Hamabost guardia zibil daude auzipetuak. Besteak beste, fiskaltzak hiru urteko zigorra eskatzen du bi guardia zibilentzat eta beste birenztzat bi urtekoa atxilotuak torturatu izanagatik. Ez da sarri ikusten halako eszenarik eta ikusmin handia sortuko dela ez da zalantzarik.

Ia urtero NBEak atxilotuen inkomunikazioari buruzko legedia bertan behera uzteko eskatzen dio Espainiako Gobernuari.

Dozenaka dira torturak salatzen dituzten atxilotuak, joan den astean Xabier Atristainek eta Juan Carlos Besancek egin zuten moduan. Baina berdin da, torturak ez du existitzen Espainian, eta Euskal Herrian ere ozta-ozta agertzen da errealitate zer den eta zer ez ebazten duten hedabideen ispilu horretan.

Atristainek eta Besancen tortura salaketak ezagutu biharamunean hedabide mordoska arakatu nituen sarean, baina ezer ez, salaketa horien arrastorik ez: *El País*, *El Mundo*, *El Correo*, *El Diario Vasco*, EITB.com... Venezuela, FARC eta ETArek balizko harremanei buruzkoak denak eta bi. Eta logikoa da, albistea hor dagoelako. Baina ustez, iturri beretik atera da hori guztia, Atristainek eta Besanceren ahotik, eta hauek, halaber, torturak ere salatu dituzte.



Hemengo egunkarien artean *Gara*-k, *Berria*-k eta *Noticias* taldekoek eman zuten salaketaren berri. Ezin zaie eskatu hedabideei salaketa hauek sinestea, baina bai behintzat salaketa horiek egin dituztela aipatzea. Are gehiago aurreko egunetan Venezuelako enbaxadorearekin gertatutako guztia ondoan.

Ezikusiarena egin gura ez bada, ez da posible halakorik ez aipatzea. Ez da posible zaborrontzi baten erretaren aurrean halako sentsibilitatea agertzea eta tortura salaketen aurrean halako indiferentzia. Eta bai, alderantziz gertatzen dela ere begi bistakoa da, baina batak ez du bestea justifikatzen. Garai berrian erronketakoa izango da bestearen sufrimendua islatzeko eta sentiarazko mekanismoetan sakontzea.

Espainiako erakunde publikoak gai dira milaka kamera jartzeko kaleetan, bertan zer gertatzen den zelatatzeke, baina ez dira gai hori bera modu txukun batean egiteko komisaldegietan, edo tortura salaketa jasaten duten komisaldegietan. Edo jartzen badituzte, gero ez dituzte irudiak erakusten. Agian ez dagoelako irudirik, agian ikusten dena ez delako egokia.

Teknikoki samurra beharko luke tortura ezabatzea. Inkomunikazio luze horiek bazterreratu, atxiloaldian konfiantzazko abokatu eta medikua- ren bisita baimendu. Tortura zantzu- rik dagoenean ikertu eta, dagokio- nean, zigortu. Baina horretarako presio soziala ere behar da, erakun- deena, hedabideena, alderdiena, herritarrena... Baina edukiontzi erreka begi bistan dira, tortura ez; torturatu eta torturatzailaren begietan bakarrik islatzen da.

CORBACHO MINISTROAK joan den astean Kataluniako balizko independentziari buruz esandakoak eskandalua ekarri zuten Katalunia- ra. Aspaldi ez da halako adierazpen mehatxugarriarik entzun. Hau da, ekonomikoki Kataluniak ez lukeela Espainiatik bereizteko arazorik, baina ez pentsatzeko hori traumati- koa ez litzatekeenik, "ez pentsa gauza baketsuak liratekeenik".

Egun ez da sinesgarria Kataluniak independentzia aldarrikatuz gero, Espainiak gerrarekin erantzun deza- keenik. Hala ere, arduragabekeria galanta dira adierazpenok. Batez ere, VIII. artikulua ospetsua hor dagoenean.